


# Sozialismoa eta kristauak



Euskal Herriak behar ote du **Kristauak sozialismoaren alde** talderik? Zaila da baietz ala ezetz borobil esatea. Ez gaitezela, behintzat, berrikeria zaharrik asmatu nahiez hasi berriro. Ezta, **kristau** izenik agertzen delako, ezezkoan setatu ere.

Euskal sozialismoak berak, agian, kristautasunak baino taldeon behar gutiago du. Alegia, euskal sozialismoak behar ditu kristauak, nik uste. Baina ez derrigor kristau talde berezirik. Sozialista bezala behingoan pentsatzen duguna horixe da: kristauak, sozialista badira, onena sozialistekin berdintzea etaATEGITEA dute, talde berezirik egin gabe. Kristau bezala ere kezkarri iruditzen zaigu halako talde bat aparte. Konpreni bekigu, kristautasun organizatuzurik politikan sartu dela, entzun orduko, dardaraz hasten bagara ikararuta. Eskarmentua ez da gauza txarra. Eta uretan ito ala sutan erre, alde haundirik ez.

Halare, sozialismoa irabaziz irten daiteke taldeekin. Sozialismoarentzat jenderik irabaz dezakete batipat. Baina, batez ere, taldeok euskal sozialismoari, bestela kristau sozialistek, banaka, ematen ez diotena, eman diezaioke. Euskal Herrian jende asko pasa da kristautasunetik sozialismora. Baina eskuetako harmak bota eta frontea aldatuz bezala pasa dira. Esku hutsik. Gehienetan, biek elkarrekin zerikusirik ez balute bezala utzi bait dira kristautasuna eta sozialismoa. Kristautasunaren eta sozialismoaren arteko ikuskizunak taldeok sakon ditzakete, sozialismoa biziki aberastuaz.

Sozialismoak behar duena kristauak dira. Ez kristau talde berezirik. Baina gauzak halaxe ibiltzen dira. Kristauak, talderik osatzen ez badute, seguru asko ez diote emango sozialismoari, ematea tokatzen zaiena. Horrek ez du

esan nahi, sozialista-kristau guziek halako talde batetan sartu beharko luke tenik.

Izan ere, gure ustez, sozialismoa tradizio askotatik aberasten den pentsaera da. Erreka askotako urak biltzen dituen hibaia.

Fabriketako langileen tradizioa da orain —oraingo sozialismoan— inportanteena. Proletargoarena.

Baina nekazari tradizio aberatsa dago, halaber. Eta ez Erdi Haroko nekazari erreboltetan hezur-mamitu zena bakarrik. Antzinako laborari gizarteak, artzantzaren larre lur komunalak eta partzoneriak, eta abar, beren forma juridikoetan eta inportantzia sozial-ekonomikoan ia bitxitasun hutsak iruditzen bazaizkigu ere, ez dira erlekia historiko soilak. Sozialismo *zientifikoan* paper haundia jokatu dute. Ez beti positiboa. Jabego kolektiboaren eredia, adibidez, industria gizartearentzat ere, funtsean artzantza eta nekazari gizarte haiei kopiatu zaie. Bai Marxek eta bai Leninek hortik jo dute. Ereduok baliozkoak ote diren dudatzeko ere, tradizioko haiek oso gogoan hartu behar.

Sozialismo tradizio-erlijiosoa hainbat aberatsagoa da. Artzantza eta nekazari gizartearekin bateginik ibili da gehienbat. Erdi Haroko mugimendu sozialietan, esate baterako. Israelgo profetak tradizio sozialistarentzat aprobe txatu dituenik izan da (Hego Ameriketako teologia berriak asko begiratu ohi die profetaoi). Jesus Nazaretakoaz, zer esanik ez. Marxen pentsaeran jude-

gutasunak duen inportantzia nahikoa aipatu da. Sozialismo proletarioan bertan izan da makina bat mugimendu erlijiosorik.

Sozialismoarentzat sozialismo tradizio erlijiosoa aprobetxatzea, edozein sozialista fededuni tokatzen zaio berez. Baina *berez* hori, beste *balizko ola* hura da: burdinik ez omen zuena. Errealitatean zer gertatzen ari den eta zer gertatuko den, guzian agirian dago. Talde batzuk hortan enplegatzen ez badira, ez da ezer egingo.

Kristauak euskal sozialismoari bererik ematekotan, ia nahitaezkoak dirudite, gauzak diren bezala, *Kristauak sozialismoaren alde* taldeak.

Gauzatxo bat geratzen da: taldeok hemen luketen eginkizuna. Kalendarioak hemen 1976 seinalatzen du. Adibidez, *Kristauak sozialismoaren alde* taldeek, beste leku batzuetan, kristaua sozialista izan litekeela, erakusten saiatu behar izan dute. Sozialismoa ez dela bekatu. Etc. Nik uste dut, problemaok hemen zentza haundirik ez dute la. Apenas izan liteke hori hemengo problema. Halako talde batek problema hemengo problematikaren mailan ezarri beharko ditu. Hemengo kristautasunari eta hemengo sozialismoari dagokion mailan.

Baina luzarora gutiegi izango da *sozialismoaren alde* aritzea. Zein sozialismoren alde, erabaki beharko da. Eta, azkenean, zein Alderdi Sozialistaren alde.

JOXE AZURMENDI

deportes

Jator jantzi  
nahi baduzu



kirolak

Avda. España, 4  
DONOSTIA